

Ikasgaiaren izena Kodea. Gradu Bukaerako Lana	ECTS kredituak 24 ECTS Derrigorrezkoa
Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena LAUGARREN MAILA – SEI HILEKOA	Modalitatea Presentziala
Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak <p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Lan eskari bati egokitutako planteamendu bat diseinatzea eta garatzea, graduko ikasketetan barneratutako ezagutzak eta abileziak aplikatuta</p> <p>(Kodea)- Gradu Bukaerako Lana aurkeztea, azaltzea eta defendatzea, bai modu akademikoan, bai publiko espezializatuaren aurrean, komunikazio prozedura aproposak behar bezala eta eraginkortasunez erabiltzea</p> <p>(Kodea)- Lan arloko irtenbideak eta aukerak ezagutzea eta aztertzea, ikaskuntza berriak aintzat hartuta</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Ekintzailtza eta berrikuntza</p> <p>(Kodea)- Talde lana</p> <p>(Kodea)- Ikasten ikastea</p> <p>(Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p>	
Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak <p>Enpresa, elkarte edo erakunde baten eskaera zehatz bati erantzuteko proposamen bat planifikatzea eta prestatzea</p> <p>Graduan lortutako ezagutzak eta trebetasunak aplikatzea proiektua gauzatzeko</p> <p>Metodologia akademikoaren irizpideak eta arauak erabiltzea Gradu Bukaerako Lana egiteko</p> <p>Komunikazio eraginkorraren oinarrizko alderdiak erabiltzea, proiektua behar bezala aurkezteko eta defendatzeko</p> <p>Lan arloko aukerak ezagutzea, baita mundu horretara egokitzeko moduak ere</p> <p>Irtenbide profesionalak aztertzea, ikaskuntza berriak kontuan hartuta</p>	
Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena <p>Ikasgai honetan, ikasleek Ikus-entzunezko Komunikazioa graduan lortutako ezagutza, gaitasun eta abilezia guztiak erabiltzen eta garatzen dituzte, enpresa edo erakunde jakin batentzat prestatu beharreko proiektu batean. Proiektu guztiek komunikazioaren arloarekin zerikusia duten arren, aldatu egin daitezke kasu batetik bestera; hortaz, ikasgaiak graduaren profil guztiekin dauka lotura: Ikus-entzunezko komunikatzailea, Produktorea, Diseinatzaile grafikoa, Telebistako zuzendaria eta errealizadorea eta Gidoigilea.</p>	

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko kompetentziekin duen harremana

MT1. Eskola magistralak
MT2. Kasuak aztertzea
MT3. Problema ebaztea
MT4. Proiektuak

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP1. Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problema edo proiektuak, lan kooperatiboa...
JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak
JP3. Eskola praktikoak
JP4. Ahozko azalpenak
JP5. Tailerrak
JP6. Jarraipenerako tutoretzak
JP7. Mintegiak
JP8. Praktikak ikastegian/Kanpoko bisitak
JP9. Aurkezpenak
JP10. Simulazioak/Rol jokoak
JP11. Landa lana

Ez-presentzialak

JEP1. Ikasketa eta lan autonomoa
JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak
EB2. Banakako lanak
EB3. Azalpenak eta aurkezpenak

Edukien laburpena

Gradu Bukaerako Lanaren xedea da lan bat prestatzea eta aurkeztea, graduan landutako oinarritzko kompetentziak, kompetentzia espezifikoak eta zeharkako kompetentziak bateratzeko ariketa gisa, eta, bide horretatik, ikasleek lan arloa gertuagotik ezagutzea

- Gradu Bukaerako Lana garatzea
- Gradu Bukaerako Lana egitea
- Gradu Bukaerako Lana aurkeztea eta defendatzea

Gradu Bukaerako Lan guztiak fakultateko irakasleen eta dagokion enpresa edo erakundeko arduradunen tutoretzapean gauzatzen dira.